# 13
## SARIA

### JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU

NAFARROKO FORU
KOMUNITATEKO TOKIKO
GARAPENJASANBARRIKO
JARDUNBIDE
EGOKIETAKO

**2023 - 2024**

# SARIKETAREN OINARRIAK

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

AL21 Red NELS

## Presentación

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Tokian tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokien 13. “José Ignacio Sanz Arbizu” Saria deitu du 2023an.

Lehiaketa bi urtez behin egiten da, eta ekimenik onenak hartzen ditu aintzat etxebizitza eta garapen komunitarioan nahiz hiri eta eskualde garapenean, bai eta kudeaketa jasangarrian ere, eta honako oinarri hauek dituzten proiektuak lehenesten ditu: asoziazionismoa, lidergoa eta sendotze komunitarioa, genero berdintasuna eta gizarteratzea, berrikuntza eta transferigarritasuna. Irabazleak zuzenean sartzen dira NBEren praktikarik onenak nazioarteko sarietan, hau da, Dubain egiten diren sarietan.

Hamargarren ediziotik, sariari izen zehatz bat eman zaio, ez baitzuen izenik, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Tokian Tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokien José Ignacio Sanz Arbizu Saria.

Izen horren bidez ingeniari horren ibilbidea eta lana aitortu nahi dira, bere lanbidean nahiz bizitzan apustu sendoa egin baitzuen ingurumenaren alde eta gure planetaren jasangarritasunaren alde.

Sariak “Nafarroako gizartearen kontzientzia bultzatu eta hobetu nahi du jendearen bizi baldintzen hobekuntzari lotuta jasangarritasunaren arloan, herrietan nahiz hirietan, izan diren lorpenen inguruan”, eta xede hori bat dator erabat José Ignacio Sanz Arbizuk aldeztutako balioekin, Europako hiri aurreratuenen ereduak Nafarroara hurbiltzeko ahaleginean; bereziki, mugikortasun arloko esperientzia ezkutsagarrietan, eta hirien eta ibaien arteko integrazioan.

José Ignacio Sanzen lagun eta haren hurbileko profesionalek proposatu zuten saria hari eskaintzea, eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Kontseilaritzak eskaera onartu eta aitortza hori onetsi zuen.

**Deialdiaren oinarriak azaroaren 4ko 959E//2023 Ebazpenaren bidez onetsi dira, Ingurumeneko Zuzendari Nagusiak emandakoa.**



**JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU**
(Iruña, 1947-2014) ingeniari industriala. Hainbat arlotan egin zuen lana, hala nola plangintzan, hirigintzan, uraren arloan, lurraldean, hirian eta energia alternatiboetan.

NILSAko lehen kudeatzailea izan zen (1989-95) eta Iruñerriko Argaren Ibai Parkearen egileetako bat ere bai.

Alde askotan isuri zuen bere jakintza, bere izaera perfekzionista, eta halaber, hondakinak gaika biltzeko lehen esperientzietan lan egin zuen Nafarroan, Lorea taldearekin, lehen energia planean, TAINArekin, eta Nafarroako Bizikletaren Plan Zuzentzailean 2006an, beste proiektu aitzindarien artean.

# Aurkibidea

Aurkezpena ........ 2

Aurkibidea ........ 3

**SARIKETAREN OINARRIAK** ........

Xedea ........ 4

Saria eta aldizkotasuna ........ 4

Nork parte har dezakeen ........ 4

Jardunbide egokiak saritzeko irizpideak ........ 5

Eskabideak aurkeztea ........ 8

Hautapen prozesua ........ 9

Sarirako egutegia ........ 10

**ESPAINIAKO HABITAT BATZORDEA ETA DUBAIKO NAZIOARTEKO SARIAK**

Espainiako Habitat Batzordea ........ 11

Sariaren historia ........ 12

Dubaiko Adierazpena ........ 12

Jardunbide Egokienak bereiztea ........ 12

**JARDUNBIDE EGOKIAK WEBEAN** ........ 13

**AURREKARIAK** ........

Jardunbide hoberenak (JH) eta Aipamen bereziak ........ 14

2021 - 2022ko emaitzak ........

Tokiko agenden mapa ........ 18

Aurreko edizioen liburuxkak ........ 18

13 SARIA

JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU

NAFARROKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO GARAPENJASANBARRIKO JARDUNBIDE EGOKIETAKO

2023 - 2024

HASIERA
AURKIBIDEA
INPRIMAKETA

# Sariketaren oinarriak

1. XEDEA
2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA
3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN
4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK
5. SARIKETAREN OINARRIAK
6. HAUTAPEN PROZESUA
7. SARIRAKO EGUTEGIA

## 1. XEDEA

Tokian tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokien XIII. Sariak Nafarroako gizartearen kontzientzia bultzatu eta hobetu nahi du bizi baldintzen hobekuntzari lotuta garapen jasangarriaren arloan izan diren lorpenen inguruan, betiere Europako Hirien Jasangarritasunaren aldeko Aalborgeko Gutunean nahiz Konpromisoetan, Jasangarritasuneranzko Hiri Europarretan, Giza Kokalekuei buruzko Nazio Batuen Bigarren Konferentzian (Habitat II), Giza Kokalekuei buruzko Nazio Batuen Hirugarren Konferentzian (Habitat III) eta Europar Batasunaren Integrazioko Ingurumen Printzipioetan, Hannoverko Adierazpenean (Europako Buruen adierazpena, XXI. mendearen Atarian) eta NBEko Garapen Jasangarriko 2030 Agendan ezarritako irizpide eta konpromisoen arabera; horiek guztiak, garapen jasangarriaren ikuspegitik.

## 2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA

Saria bi urtean behingoa izanen da, eta honelakoa:

**1.** Hiru jardunbide hoberenetako bakoitzarendako: 1.000.

**2.** Hiru jardunbide hoberenetako bakoitzarendako eta aipamen bereziendako, halakorik balego: diploma bat eta garaikur bat.

**3.** “2021-2022 Nafarroako Foru Komunitateko Tokian tokiko Garapen Iraunkorreko Jardunbide Egokien Hamabigarren Katalogoa”.

**4.** Katalogoa Nafarroan, Espainian eta nazioartean zabaltzea.

## 3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN

Nafarroan, toki esparruan garapen jasangarriko jardunbide egokiak egin dituzten entitate eta pertsonei irekita dago saria, hala nola:

**1.** Toki entitateak.

**2.** Irabazi-asmorik gabeko entitateak:
Kooperatibak.
Korporazioak.
Fundazioak.
Federazioak.
Elkarteak.

**3.** Unibertsitateak, eta zientzia eta ikerketa arloko erakundeak.

**4.** Autonomoak eta mikroenpresak.

1. XEDEA
2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA
3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN
4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK
5. SARIKETAREN OINARRIAK
6. HAUTAPEN PROZESUA
7. SARIRAKO EGUTEGIA



HASIERA
AURKIBIDEA
INPRIMAKETA

## 4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira jardunbide egokia saritzeko kontuan hartuko diren irizpide nagusiak. Guztiak aldi berean betetzea izanen da ezinbesteko baldintza:

**1. ERAGINA**
**2. ASOZIAZIONISMOA**
**3. JASANGARRITASUNA.**
**Gainerakoak irizpide (4, 5, 6 eta 7) gehigarriak dira.**

### 1. ERAGINA

Amaitutako edo martxan jarritako ekimenak izanen dira, emaitza frogagarriak eskaintzen dituztenak, eta haien eragina baloratuko da. Jardunbide egokiek eragin onuragarria izan behar dute jendearen bizimoduan, haiek suma dezaketena.

### A) Etxebizitza jasangarria eta klima-aldaketara egokitua:

**1.** Ingurune eraikien birgaitze energetikoa auzo edo herri eskalan, klima-aldaketara egokitzea.

**2.** Higiezinen birgaitze integrala, egokitzapenerako neurriak (inguratzaileak…) arintze-neurriei lotutakoak (energia berriztagarriak sartzea…).

**3.** Tokiko baliabideen balioa nabarmentzea, zurezko eraikuntza.

**4.** Etxebizitza eskuragarria, zerbitzu eta azpiegitura komunitarioak, elkarlanerako ereduak.

**5.** Etxebizitza soziala alokairuan sustatzea.

**6.** Etxebizitza eskuratzen laguntzeko neurriak demografiaerronka duten udalerrietan.

**7.** Plangintza eta partehartze komunitarioa erabakiak hartzeko eta baliabideak esleitzeko.

### B) Hiriaren eta eskualdearen garapen jasangarria:

**1.** Enplegua sortzea eta pobrezia desagerraraztea.

**2.** Kutsadura murriztea eta ingurumenaren osasuna hobetzea.

**3.** Garraio publikorako eta komunikazioetarako sarbide hobea.

**4.** Zaborraren bilketa, birziklapena eta berrerabilpen hobea.

**5.** Hiria lorategiz hornitzea eta eremu publikoaren erabilera eraginkorra.

**6.** Ekoizpenaren eta kontsumoaren ziklo hobeak, berriztagarriak ez diren baliabideak ordeztea eta murriztea barne.

**7.** Natur baliabideak eta ingurumena babestea eta zaintzea.

**8.** Energia eraginkorrago erabiltzea eta sortzea.

**9.** Toki historiko eta kultural garrantzitsuenak zaintzea.

**10.** Hiri garapenerako estrategia integratu eta orokorrak zehaztea eta praktikan jartzea.

### C) Kokalekuen kudeaketa jasangarria, eraginkorra, arduratsua eta gardena:

**1.** Kudeaketa, administrazio eta informazio sistema eraginkorragoak eta efikazagoak.

**2.** Genero berdintasuna eta ekitatea erabakiak hartzean, baliabideak banatzean eta programak diseinatu eta praktikan jartzean.

**3.** Delituak murriztu eta prebenitzea.

**4.** Hondamendien kontrako prestakuntza hobea, haiek arintzea eta berreraikuntza.

**5.** Gizarteratzea, eta bazterketa apaltzea.

**6.** Ekintza eta aldaketak ekarriko dituen lidergoa, baita politika publikoan ere.

**7.** Erantzukizuna eta gardentasuna sustatzea.

**8.** Berdintasuna eta ekitate soziala sustatzea.

**9.** Agentzien arteko koordinazioa hobetzea.

13 SARIA
JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU
NAFARROKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO GARAPENJASANBARRIKO JARDUNBIDE EGOKIETAKO
2023 - 2024



# Sariketaren oinarriak

1. XEDEA
2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA
3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN
4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK
5. SARIKETAREN OINARRIAK
6. HAUTAPEN PROZESUA
7. SARIRAKO EGUTEGIA

## 2. ASOZIAZIONISMOA

Asoziazionismo maila hartuko da kontuan. Honako eragile hauetako bik gutxienez eraturiko elkarteetan oinarritu behar dira jardunbide egokiak:

**1.** Toki entitateak.

**2.** Irabazi-asmorik gabeko entitateak:
- Kooperatibak
- Korporazioak
- Fundazioak
- Federazioak
- Elkarteak.

**3.** Unibertsitateak eta zientzia eta ikerketa arloko erakundeak.

**4.** Autonomoak eta mikroenpresak.

**5.** Bestelako elkarteak.

## 3. JASANGARRITASUNA

Jardunbide egokiek beren ondorio integratua eta suma daitekeena behar dute frogatu. Balio gehiago dute diru aldetik bideragarriak izanik, inor baztertu gabe eta ingurumena errespetatuz, honako arlo hauetako batean, bederen, aldaketa iraunkorrak sortzen dituzten jardunbideek:

**a)** Lege eta erregelamendu esparruak, arau subsidiarioak edo estandarrak, beren xedeko gai eta arazoen ezagutza formala ematen dutenak.

**b)** Politika sozialak eta/edo sektoreko estrategiak, eskualde edo herri mailakoak eta errepikatzeko aukera ematen dutenak.

**c)** Instituzioen esparrua eta erabakiak hartzeko prozesuak, maila eta partaide bakoitzari bere zeregina eta erantzukizuna ematen dietenak, hala nola gobernuko erakunde zentralei eta tokikoei eta oinarrizko komunitate erakundeei.

**d)** Kudeaketa sistema eraginkor, garden eta arduratsuak, baliabide teknikoak, finantzarioak, naturarenak zein giza baliabideak eraginkorrago bihurtzen dituztenak.

Zeharka, proiektuak baloratuko dira segun eta zenbateraino betetzen dituzten Nazio Batuen Erakundearen 2030 Agendako Garapen Jasangarriaren Helburuak, baita tokian tokiko beste zehaztapen batzuk, hala nola Hiriagenda Berria.

## 4. LIDERGOA ETA KOMUNITATEAREN INDARTZEA

**a)** Ekintza eta aldaketak ekarriko dituen lidergoa, baita politika publikoan ere.

**b)** Jendea, bizilagunak eta komunitateak indartzea eta haien ekarpenak aintzat hartzea.

**c)** Dibertsifikazio soziala eta kulturala onartu eta bereganatzea.

**d)** Transferentziarako, egokitzeko eta errepikatzeko aukerak.

**e)** Tokian tokiko baldintzei eta garapen mailei egokitutako neurriak.

## 5. GENERO BERDINTASUNA ETA GIZARTERATZEA

Aniztasun soziala eta kulturala onartu eta haiei erantzuten dieten ekimenak, berdintasuna eta zuzentasun soziala sustatzen dituztenak, diru-sarrerak, sexua, adina, egoera mentala eta fisikoa oinarri izanik, esate baterako; eta tratamendu desberdinak aitortzen eta baloratzen dituztenak.

## Sariketaren oinarriak

1. XEDEA
2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA
3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN
**4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK**
5. SARIKETAREN OINARRIAK
6. HAUTAPEN PROZESUA
7. SARIRAKO EGUTEGIA

### 6. BERRIKUNTZA TOKIAN TOKIKO TESTUINGURUAN ETA TRANSFERIGARRITASUNA

Berritzaile izateagatik besteentzat eredu diren jardunbideek balio handiagoa izanen dute, beste esperientzia batzuek imitatu eta egokitu baititzakete.

Sektore horretako ohiko jardunbideekiko diferentziala izan behar dute edo nabarmendu behar dute.

Jardunbideak borondatez eginak izan behar dute. Ezin dira izan indarreko legeriak eskatutako jarduerak soilik; hartutako konpromisoaren ondorio izan behar dute, legeak ezarritakotik harago.

### 7. TRANSFERENTZIAK

**a)** Eragin nabaria, hauetako baten edo gehiagoren transferentziaren ondoriozkoa: ideiak, abileziak, prozesuak, ezagutzak, trebetasunak eta/edo teknologia.

**b)** Aldaketak politiketan edo praktiketan.

**c)** Transferentziaren jasangarritasuna, denboran iraunen duen etengabeko ikaskuntza eta aldaketa prozesu baten zati gisa.

## Sariketaren oinarriak


1. XEDEA
2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA
3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN
4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK
5. **SARIKETAREN OINARRIAK**
6. HAUTAPEN PROZESUA
7. SARIRAKO EGUTEGIA


13. SARIA

JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU

NAFARROKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO GARAPENJASANBARRIKO JARDUNBIDE EGOKIETAKO

2023 - 2024



# 5. SARIKETAREN OINARRIAK

**Eskaerak esteka honen bidez aurkeztuko dira Datuak Biltzeko Fitxa erantsiarekin batera.**

**Eskaera aurkezteko:**

https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/premio-jose-ignacio-sanz-arbizu-de-buenas-practicas-de-desarrollo-local-sostenible#:~:text=Para%20cada%20una%20de%20las,de%20Navarra%202021%2D2022%E2%80%9D

**Datuak Biltzeko Fitxa deskargatzeko:**

**Gaztelaniaz:**
http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/F5FC47E3-1A1C-462D-9B44-18A6C69370AE/488837/FicharecogidaCastellano2324.pdf

**Euskaraz:**
http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/F5FC47E3-1A1C-462D-9B44-18A6C69370AE/488838/FicharecogidaEuskera2324.pdf

**Datuak Biltzeko Fitxa formatu digitalean bidali beharko da.**

Aukeran, honako material osagarriak sartzen ahalko dira:

**a)** Egunkari, aldizkari edota beste argitalpen batzuetan argitaratutako artikuluak.

**b)** Bideoak formatu digital estandarrean, 10 minutuko iraupenekoak.

**c)** Argazkiak edo bestelako material grafikoa.

**d)** Foiletoak edo bestelako publizitate-materiala.

Eskaerak deialdi hau argitara eman eta biharamunetik aurrera aurkeztu beharko dira 2024ko ekainaren 30era arte, biak barne.

1. XEDEA
2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA
3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN
4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK
5. SARIKETAREN OINARRIAK
6. HAUTAPEN PROZESUA
7. SARIRAKO EGUTEGIA



HASIERA
AURKIBIDEA
INPRIMAKETA

## 6. HAUTAPEN PROZESUA

2024ko ekainaren 30era bitarte aurkezten diren eskaerei prozesu hau aplikatuko zaie:

**1.** Jardunbide egokien oinarrizko irizpideak betetzen dituzten ekimen guztiak adituen batzorde batera bidaliko dira, behar bezala azter ditzaten; honako pertsona hauek osatuko dute aipatu batzordea, edo haien ordez joaten direnek:

• Nafarroako Gobernuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendaria.

• Susana Cuesta Márquez. Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko Plangintzaren eta Azterlan Ekonomikoen Ata Ieko burua.

• Carolina Sanchez-Pedreño Manglano, Hiri Agenda eta Arkitekturako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuburua. Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri Agendarako Ministerioa.

• Juan Jesús Echaide, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

• Andoni Iso Tinoco, Soziologia eta Gizarte Lana Saila, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, eta I-Communitas ikerketa institutukoa.

• Inazio Irigoien Iriarte, Agronomia, Bioteknologia eta Elikadura Saila, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

• Mikel Xabier Ortigosa Lekunberri, Toki Agenden eta Lankidetzaren Bulegoko burua, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Gobernua.

**2.** Adituen batzordeak aztertu eta, komenigarritzat jotzen badu, argibide osagarriak eskatuko ditu eta katalogoan argitaratzeko merezimenduak dituzten ekimenak hautatuko ditu. Hautatzen direnetatik, gehienez ere hiru jardunbide hoberenak nabarmenduko dira sa- rirako. Gainera, kalitatearen arabera, Aipamen Berezi edo Gomendio batzuk hartzen ahalko dira aintzakotzat.

**3.** Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak igorle bakoitzari erabakiaren berri emanen dio, sarirako hautapen prozesua amaitutakoan.

13 SARIA
JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU
NAFARROKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO GARAPENJASANBARRIKO JARDUNBIDE EGOKIETAKO
2023 - 2024



## Sariketaren oinarriak

1. XEDEA
2. SARIA ETA ALDIZKOTASUNA
3. NORK PARTE HAR DEZAKEEN
4. JARDUNBIDE EGOKIAK SARITZEKO IRIZPIDEAK
5. SARIKETAREN OINARRIAK
6. HAUTAPEN PROZESUA
7. SARIRAKO EGUTEGIA

### 7. SARIRAKO EGUTEGIA

**2024ko ekainera bitarte**

XIII. Sariaren aurkezpen publikoa egiteko, deial-dia banatzeko eta zabaltzeko aldia.

**2024ko ekainaren 30a**

Mugaeguna 2023-2024ko sarirako aurkezpenak jasotzeko eta jardunbide egokien datu-basean sartzeko.

**2024ko iraila**

Baloratu diren jardunbide egokiak aurkeztuko ditu adituen batzordeak, Nafarroako 13. lehiake-ta honen katalogoa prestatu eta editatzeko, eta, haietatik, saritzea merezi duten hiru jardunbide hoberenak. Bestetik, bidezko bada, aipamen be-rezia duten jardunbide egokiak.

**2024ko azaroa**

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Depar-tamentuak sariak banatuko dizkie hautatutako per- tsona edo erakunde parte-hartzaile guztiei, “Nafarroako Foru Komunitateko 2023-2024ko Tokian tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokien Hamahirugarren Katalogoa” aurkezteko eginen den ekitaldi publikoan.

1. ESPAINIAKO HABITAT BATZORDEA
2. SARIAREN HISTORIA
3. DUBAIKO ADIERAZPENA
4. JARDUNBIDE EGOKIENAK BEREIZTEA



## 1. ESPAINIAKO HABITAT BATZORDEA

Espainiako Habitat Batzordea 1994an eratu zen helburu nagusia zuela prestatzea zein izanen zen Espainiaren ekarpena Habitat II Konferentzian (Istanbul, 1996). Konferentziarako ekarpenen lanak bukatutakoan eta hura egin ondoren, 1997an Sustapen Ministerioak pentsatu zuen egoki zela Batzordea indartzea berriz, Habitat Programa Espainian nola aplikatu koordinatzeko.

2016ko urrian, Nazio Batuen Hirugarren Konferentzia egin zen Quiton (Ekuador) etxebizitza eta hiri garapen jasangarriaz (HABITAT III); helburua izan zen hiri garapen jasangarriaren aldeko konpromiso orokorra berriz ere bultzatzea, “Hiri Agenda Berria” abiatzea ardatz hartuta.

Habitat Batzordea hasiera-hasieratik izan da izaera zabalekoa, bertan hartu baitute parte erakunde anitzetako ordezkariek, hala nola: Estatuko administrazio orokorraren hainbat departamentutakoek, autonomia erkidegoetakoek, toki administraziokoek, sektore pribatukoek, finantza erakundeetakoek, gobernuz kanpoko erakundeetakoek eta erakunde profesionaletakoek, besteak beste.

Sustapen Ministerioko Arkitektura, Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiaren esku dago Espainiako Habitat Batzordeko idazkaritza iraunkorra.

Espainiako Habitat Batzordearen eginkizunak eraginkorragoak eta operatiboagoak izan daitezen, erabaki zen Jardunbide Egokiei buruzko Lantalde bat eratzea, hori ere izaera zabalekoa aipatu Batzordean partaide diren parte-hartzaile guztientzat, eta deialdi bakoitzean, gainera, edizio horretan parte hartzen duen Adituen Taldea ere arituko da Batzordean. Koordinazioa Arkitektura, Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiaren Hirigintza Zuzendariordetza Nagusiaren esku dago, eta hiriari buruzko esku-hartze politikak sustatzea du helburu, Habitat Programaren konpromisoak garatzeko, “Giza Kokapen Jasangarriak” eta “Guztiendako Etxebizitza Egokia” lortze aldera, honako jardueren bitartez:

- Bultzatzea eta koordinatzea Estatuan deialdia eta jarduketen aurre-aukeraketa Bizi baldintzak hobetzeko Jardunbide Egokien Nazioarteko Lehiaketan aurkezteko, Nazio Batuek deitua.

- Esperientziak zabaltzea, dela Batzordeak izendatutako Jardunbide Egoki espainiarren Katalogoaren bidez, dela jardunbide egokien gaineko erakusketa ibiltarien bidez, dela esperientziak trukatzeko mintegien bidez, dela hiri jasangarriei buruzko Liburutegi elektroniko bat mantentzearen bidez, etab.

1. ESPAINIAKO HABITAT BATZORDEA
2. SARIAREN HISTORIA
3. DUBAIKO ADIERAZPENA
4. JARDUNBIDE EGOKIENAK BEREIZTEA



## 2. SARIAREN HISTORIA

Dubaiko Nazioarteko Saria, Bizitzako baldintzak Hobetzeko Jardunbide Egokiei buruzkoa, Maktoum Bin Rashid Al Maktoum xeke zenaren jarraibideei segituz sortu zen Nazio Batuen 1995eko Nazioarteko Konferentzian, Dubain egin baitzen, zeinetan parte hartu baitzuten 95 herrialdetako 914 ordezkarik. Sariek helburu zuten bizitzako baldintzak hobetzen lagungarriak ziren jardunbide egokienak aukeratzea.

## 3. DUBAIKO ADIERAZPENA

Dubaiko Adierazpena izan zen aipatu konferentzia horretako emaitzarik garrantzitsuenetako bat, bertan ezarri baitziren aintzatespena eta zabalkundea merezi zuten jardunbide egokienak bereizteko irizpide nagusiak.

Ondoren, Dubaiko Adierazpen hori bere egin zuten bai Giza Kokalekuei buruzko Nazio Batuen Konferentziak (Habitat II), bai Hirien eta Toki Agintarien Munduko Elkarteak, Istanbulen egin baitzen, Turkian, 1996ko ekainean.

## 4. JARDUNBIDE EGOKIENAK BEREIZTEA

Jardunbide Egokiak bizitzako baldintzak hobetzera bideraturiko ekarpen bikainak dira. Nazio Batuek eta nazioarteko komunitateak, oro har, adostu dute honako ezaugarri hauek dituzten ekimen arrakastatsuak direla:

**1.** Eragin nabarmen eta agerikoa dute jendearen bizitzako baldintzen hobekuntzan.

**2.** Gizartearen sektore publiko, pribatu eta zibikoen arteko egiazko lan bateratu baten emaitza dira.

**3.** Jasangarriak dira gizarteari, kulturari, ekonomiari eta ingurumenari begira.

Nazio Batuek eta nazioarteko komunitateak Jardunbide Egokiak sustatu eta erabiltzen dituzte honako hauek helburu:

**1.** Politika publikoa hobetzea, funtzionatzen duena oinarri harturik.

**2.** Maila orotan erabakiak hartzen dituztenak eta jende guztiak gero eta gehiago ohartzea zer konponbide balia daitezkeen gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arazo komunei aurre egiteko.

**3.** Ezagupideak, trebeziak eta esperientziak partekatu eta eskualdatzea lankidez lankideko komunikazio- eta ikaskuntza-sareak erabiliz.

ONU HABITAT
POR UN MEJOR FUTURO URBANO

DUBAI INTERNATIONAL AWARD FOR BEST PRACTICES

13 SARIA

JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU

NAFARROKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO GARAPENJASANBARRIKO JARDUNBIDE EGOKIETAKO

2023 - 2024

HASIERA

AURKIBIDEA

INPRIMAKETA

## JARDUNBIDE EGOKIAK WEBEAN

**NAFARROAKO GOBERNUA**
http://www.navarra.es/home_es/

**SUSTAPEN MINISTERIOA**
https://www.fomento.gob.es/

**ESPAINIAKO HIRI AGENDA**
http://www.aue.gob.es/

**ESPAINIAKO HABITAT BATZORDEA**
https://www.fomento.gob.es/mfom/lang_castellano/direcciones_generales/arq_vivienda/suelo_y_politicas/actividad/pnuahonu/che/

**TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA**
https://www.miteco.gob.es/es/

**DUBAI INTERNACIONAL AWARD**
https://www.dubaiaward.ae/

**NAZIO BATUAK**
http://unhabitat.org/

13.

SARIA

JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU

NAFARROKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO GARAPENJASANBARRIKO JARDUNBIDE EGOKIETAKO

2023 - 2024



## 1. JARDUNBIDE HOBERENAK (JH) ETA AIPAMEN BEREZIAK (AB)

| ENTITATEAK | 1999-2000 | 2001-2002 | 2003-2004 | 2005-2006 | 2007-2008 | 2009-2010 | 2011-2012 | 2013-2014 | 2015-2016 | 2017-2018 | 2019-2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iruñerriko Zerbitzu Mankomunitatea | JH-AB | | | | | | JH | JH | | | |
| Aurizperriko Kontzejua | JH | | | | | | | | | | |
| Oraintxe Mensajería | JH | | | | | | | | | | |
| Haritz-Berri Baserri Eskola | AB | JH | | | | | | | | | |
| BSH Electrodomésticos España S.A. Eskirozko lantegia | | JH | | | AB | | AB | | | | |
| Gaztelan Fundazioa | | JH | | | | | | | | | |
| Leozko Udala | | AB | JH | | | | | | | | |
| Iruñeko Udala | | AB | AB | | AB | AB | | | | | AB |
| Nafarroako Pirinioetako Turismo Partzuergoa. Cederna-Garalur Elkartea. Nabaskozeko Kontzejua. Irunberriko, Erromantzatuko, Urraulgoitiko eta Urraulbeitiko Udalak | | AB | | | | | | | | | |
| Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A. | | AB | | | | | | | | | |
| Emausko Trapuketariak Fundazioa | | AB | | | | | | | | | |
| Schneider, S.A. | | AB | | | | | | | | | |
| Zangozako Udala | | | JH | | | AB | | JH | | | |
| Lizasoko Kontzejua | | | JH | | | | | | | | |
| Zangozaldeko Udalerriak | | | AB | | | | | | | | |
| Noain-Elortzibarko Udala | | | AB | | JH | | JH | | | JH | |
| Ilundain Fundazioa | | | AB | | | | | AB | | | |
| Izarbeibarko Mankomunitatea | | | AB | | | JH | | | JH | | JH |

HASIERA
AURKIBIDEA
INPRIMAKETA

## Aurrekariak

**1. JARDUNBIDE HOBERENAK (JH) ETA AIPAMEN BEREZIAK (AB)**
2. 2021 - 2022KO EMAITZAK
3. TOKIKO AGENDEN MAPA
4. AURREKO EDIZIOEN LIBURUXKAK

| ENTIDADES | 1999-2000 | 2001-2002 | 2003-2004 | 2005-2006 | 2007-2008 | 2009-2010 | 2011-2012 | 2013-2014 | 2015-2016 | 2017-2018 | 2019-2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Cederna-Garalur | | | AB | | | | | | | | |
| Nafarroako Mendi – Behera Elkartea | | | | JH | | | | | | | |
| Lizarrako Udala | | | | JH-AB-AB | | | AB | AB | | | |
| Barañaingo Auditorioa Fundazioa | | | | JH | | | | | | | |
| Josenea gizarteratze-laneratze Zentroa | | | | AB | AB | | | | | | JH |
| Ziklo konbinatuko Zentrala eta “El Castillo” Nekropolia. Castejon | | | | AB | | | | | | | |
| Azueloko Udala | | | | AB | | | | | | | |
| Larraun | | | | AB | | | | | | | |
| Lizoaingo Udala | | | | AB | | | | | | | |
| Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | | | | | JH | | | | | | |
| Ultzamako Udala | | | | | JH | JH | | | | | |
| Sartagudako Udala | | | | | AB | | | | | | |
| Volkswagen Navarra S.A. | | | | | AB | | | | | | |
| Quaderna Via upeltegiak | | | | | AB | | | | | | |
| TEDER Elkartea | | | | | AB | AB | AB | AB | | | |
| Antsoaingo Udala | | | | | | JH | JH | JH | JH | AB | |
| Akustika Laborategia. Nafarroako Unibertsitate Publikoa | | | | | | AB | | | | | |
| Guardian Industries Navarra S.L.U. | | | | | | AB | | | | | |
| Bortzirietako Mankomunitatea | | | | | | AB | | | | | |

13

SARIA

JOSÉ IGNACIO SANZ ARBIZU

NAFARROKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO GARAPENJASANBARRIKO JARDUNBIDE EGOKIETAKO

2023 - 2024



## Aurrekariak

1. JARDUNBIDE HOBERENAK (JH) ETA AIPAMEN BEREZIAK (AB)
2. 2021 - 2022KO EMAITZAK
3. TOKIKO AGENDEN MAPA
4. AURREKO EDIZIOEN LIBURUXKAK

| ENTIDADES | 1999-2000 | 2001-2002 | 2003-2004 | 2005-2006 | 2007-2008 | 2009-2010 | 2011-2012 | 2013-2014 | 2015-2016 | 2017-2018 | 2019-2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Berriozarko Udala | | | | | | AB | | | | | |
| Tuterako Udala | | | | | | | AB | | | | |
| Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea | | | | | | | AB | | | | |
| Argia Ikastola | | | | | | | AB | AB | | | |
| Ripakoa Kultur Elkartea eta Lizoaingo Udala | | | | | | | AB | | | | |
| Allo aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | | | | | | | | AB | | | |
| EDER Partzuergoa | | | | | | | | AB | | | |
| Arguedasko Udala | | | | | | | | | JH | | |
| Gizarte Ekimeneko Lan Kooberatiba | | | | | | | | | | JH | |
| Lizarragako Kontzejua | | | | | | | | | | JH | |
| Iturrama BHI | | | | | | | | | | AB | |
| Recircula Elkartea - El Valor de los Recursos | | | | | | | | | | AB | |
| Asociacion vecinal Errekazar de Zoroquiain - Zorokiaingo Errekazar auzo elkartea | | | | | | | | | | AB | |
| Ledeako Udala | | | | | | | | | | AB | |
| Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Josenea | | | | | | | | | | | JH |
| Aranguren Ibarreko Udala | | | | | | | | | | | JH |
| Eslabako Udala | | | | | | | | | | | AB |
| Nafarroako Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldea | | | | | | | | | | | AB |
| Estemblo Elkartea | | | | | | | | | | | AB |
| Iruñeko Udalaren Haur Eskolen Erakunde Autonomoa | | | | | | | | | | | AB |

1. JARDUNBIDE HOBERENAK (JH) ETA AIPAMEN BEREZIAK (AB)
2. 2021 - 2022KO EMAITZAK
3. TOKIKO AGENDEN MAPA
4. AURREKO EDIZIOEN LIBURUXKAK



## 2. 2021-2022KO EMAITZAK

### Praktika onenak:

• **Jardunbide Hoberena: Buruxken bilketa berreskuratzea, gizarteari eta ingurumenari begira duen balioa ikusarazteko.**
Aurkezlea: Deierriko Udala.

• **Jardunbide Hoberena: Tokiko jasangarritasuna Larragako ikastetxetik ekinez.**
Aurkezlea: Izarbeibarko Mankomunitatea.

• **Jardunbide Hoberena: Santa Barbara muinoan lurraldea zaintzeko eskola.**
Aurkezlea: Tuterako Udala eta El Castillo Fundazioa.

### Aipamen berezia honako jardunbide hauei:

• **Aipamen Berezia jardunbide honi: Oilategia - Noaingo zentzumenen parkeko konpostategia.**
Aurkezlea: Noain-Elortzibarko Udala.

• **Aipamen Berezia jardunbide honi: Nafarroako landa-munduaren jasangarritasuneranzko eta digitalizazioranzko bidean.**
Aurkezlea: Legardako Udala.

• **Aipamen Berezia jardunbide honi: Rebicicleta.**
Aurkezlea: ANASAP – Osasun Mentaleko Nafarroako Elkartea.

• **Aipamen Berezia jardunbide honi: Hezegune txikiak egitea: biodibertsitatea zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategia.**
Aurkezlea: Aranguren Ibarreko Udala.

### Jardunbide egokiak, honakoak:

• **Jardunbide Egokia: Berdesia estrategia - hiriaren ingurune berde eta osasungarria sustatzea, biodibertsitate handikoa, Klima Aldaketara egokitzeko baldintza hobeak sortze aldera.**
Aurkezlea: Berdesia Elkartea.

• **Jardunbide Egokia: Iruñea Iragazkorra. Klima-aldaketarako proposamen integral bat hirian.**
Aurkezlea: Iruñeko Udala.

• **Jardunbide Egokia: Inguratzailearen isolamendu termikoa hobetzea eskola publikoan.**
Aurkezlea: Xabier Zubialde Legarreta.

• **Jardunbide Egokia: Ardantzea, klimara egokitutako lorategia.**
Aurkezlea: Atarrabiako Udala.

• **Jardunbide Egokia: Enplegurako baratzeak: Urraulbeiti.**
Aurkezlea: Urraulbeitiko Udala.

• **Jardunbide Egokia: Azpiegitura berdea hobetzea: "Legarda bidea-bizitza bidea".**
Aurkezlea: Mendaviako Udala.

• **Jardunbide Egokia: Jasangarritasunean oinarritutako denbora libreko monitore ikastaroa.**
Aurkezlea: Lodosako Udala – Prebentzio Mahaia.

1. JARDUNBIDE HOBERENAK (JH) ETA AIPAMEN BEREZIAK (AB)
2. 2021 - 2022KO EMAITZAK
3. TOKIKO AGENDEN MAPA
4. AURREKO EDIZIOEN LIBURUXKAK

## 3. TOKIKO AGENDEN MAPA



## 4. AURREKO EDIZIOEN LIBURUXKAK

2005-2006 urtea



2007-2008 urtea



2009-2010 urtea



2011-2012 urtea



2013-2014 urtea



2015-2016 urtea



2017-2018 urtea



2019-2020 urtea

